



BARREN



“Calaveras” hirukotea

Venerando Cid, Juan Manuel Torres eta Miguel Borreguero

eu karaz hitz egiteko
Tertuliak
2009 - 2010



gurekin
gelditu

San Lorentzora
Juan

kafe bat
hartu

dakizuna
praktikatu

NAHI DOZU?

kontzertuetara
hurbildu



afaltzera
Juan

ez dakizuna
ikasi

tertulian
jardun

IZEN EMATEA urriaren 9ra arte

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea
Uribitarte 4 behea, Elgoibar • 943 741 626

Ardatzak

Botasak

Laguntzak



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputazioa Foral de Gipuzkoa



Sormena

Orain dela hilabete inguru, ez-ohiko saio bat izan genuen lanean. Abuztu bukaera, lanera buelta... Saioak buruari astindu on bat emateko aukera eskaintzen zigun: sormen-teknikak.

Egia esan, beti pentsatu izan dut ez dudala sormenerako gaitasun handirik, eta, beraz, espektatiba gutxiarekin joan nintzen saiora.

Bost-sei lagun eta dinamizatzailer bat mahaiaren bueltan eseri eta sormen-tekniken inguruko azalpen teoriko bat jasoz hasi genuen saioa. "Irtenbiderik gabekoak iruditzen zaizkigun arazoak aurkitzea, definitzea eta konpontzea da sormena".

Hasteko, *brainstorming*-a, dagoeneko zuetako askorentzat ezaguna dena.

Ondoren, *analogiak*, esperientzian oinarritzen den teknika. Antzeko arazoari emandako irtenbideak oinarritzat hartuta, ideiak jasotzea du helburu.

Azkenik, *behartutako erlazioak*, irudietan oinarritzen den teknika. Gure kasuan, arazoa lanean dihardugun proiektuetako parte hartze txikia izanda, Afrikako tribu baten iragarkia ikusi genuen. Zerikusirik ez duten irudiak erlazionatuz, ideiak sortzeko ahalmena landuz.

Saio dibertigarria, giro bikaina, iragarki ona, behartutako erlazio harrigarriak, analogia mordo... ideiak barra-barra. Gehiago ez dut esango sormenerako gaitasunik ez dudanik!

Nerea Larrañaga



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituz gurekin harremanetan:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

"Gehiago ez dut esango sormenerako gaitasunik ez dudanik"

**BETE DUZU ALBISTEAK
E-POSTAZ
JASOTZEKO HARPIDETZA?**

**EGUNERO
BIZPAHIRU
ALBISTE JASOKO
DITUZU!**

www.elgoiBARREN.net

**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**



Javieranton

ETB2ko *Vaya Semanita* saioan egin zen ezagun Javier Anton aktorea. Orain, *Euskolegas* teleailean ere dihardu lanean, eta *Cocidito Madrileño* antzezlanaren bigarren zatia prestatzen ari da. Azken bi asteotan, Elgoibarko Herriko Antzokian egon dira entseguak egiten, eta itzuliko dira emanaldia eskaintzera. Orain artean hainbat pertsonaiaren azalean sartu da 29 urteko santutziar gaztea, baina azkenaldian Barakaldoko Jonan izan da arrakastasuen.

Ainhoa Andonegi

“Jonan asko dago Euskal Herrian”



Javier Anton ala Jonan izenarekin ezagutzen zaitu gehiago jendeak?

Tamalez, azkenaldian, gehiago ezagutzen naute Barakaldoko Jonan izenarekin. Jende askok Jonatan ere esaten dit, ea Txomin non laga dudan galdetzen didate. Nire laguna Txori dela esplikatu behar izaten diet.

Euskal girotik kanpo dago Jonan pertsonaia, baina arrakasta handia izan du.

Bai, sekulakoa izan da. Badirudi Euskal Herrian arrakasta handiagoa eduki behar dutela txikiteroek edo baseritarrek, baina nork ez dauka Jonan bat barruan? Barakaldon ez ezik, herri gehienetan daude tuning-a gustuko dutenak. Euskal Herrian Jonan asko dago. Egia esaten badut, nire koadrilakoen izaeratik sortutako pertsonaia da Jonan. Inor ez da Jonan erabat, baina koadrilako lagun bakoitzarengandik zertxobait badauka Jonanek. Nire koadrilakoei omenalditxoak egiten die pertsonaiak.

Eta zuk, zertan daukazu Jonanen antza?

Abiadura gustatzen zait niri ere, baina neuk

kontrolatzen dudanean. Beste batek gidatzen badu autoa, ez zait gustatzen azkar ibiltzea. Tuning-a, ordea, ez zait gehiegi gustatzen, eta diskoteketan ere ez naiz ibiltzen. Egia esaten badizut, sekula ez naiz diskoteka batean sartu. Eskolatik Ingalaterrara joaten ginenean uda pasatzera, ibiltzen ginen apur bat giro horretan, baina hemen ez. Tabernak eta aire libreko jaiak gustatzen zaizkit gehiago. Industriagune eta poligonoetako jai giroa gertu daukat, eta ezagutzen dut, baina ez naiz zalea.

Euskolegas teleailean Alex zara. Bizkaitarra izanda, nola moldatzen zara donostiarraren paperean?

Ondo, arazorik gabe. Paperak aldatuta ditugu teleailean. Andoni Agirregomez-korta Errenteriakoa da, eta bilbotar harroaren papera egiten du. Nik, alderantziz, donostiar pijoarena. Hori bai, Realeko kamiseta janzteagatik adarjotze asko izaten ditut. Lagunek koadrilatik bidaliko nautela ere esan izan didate. Baina nik ez daukat arazorik. Aitak beti esan izan dit, “lehenengo Athletic, baina ondoren Real”.





Ezkerrean, Jonan eta Txori. Eskuman, 'Euskolegas' telesailko irudi bat.

Noren antza daukazu gehiago, Alexena ala Jonanena?

Bien gauzak dauzkat, baina gertutasunagatik, beharbada antz handiagoa daukat Jonanekin.

Vaya Semanita, Iker Jimenez aurkezlearen papera ere egiten duzu. Gustuko dituzu bel-durrezko istorioak?

Bai, baina batez ere pertsonaia diferentea delako gustatzen zait. Bakarriketa txikiak egiteko aukera eman dit txoko horrek. Ni bakarrik egoten naiz kameraren aurrean, galdera eta erantzun formula erabiliz. Umore ingelesaren traza dauka sistema horrek, eta niri umore ingelesa izugarri gustatzen zait.

Grabazioetan nola eusten diozue barregurari?

Egia esan, grabaketak asko luzatzen dira, baina gehienbat denboraz larri ibiltzen garelako. Nekeak eragiten du barregurea, eta bat hasten bada, denok amaitzen dugu barrezka. Nire ustez, hori ona da. Umorea egiteko, norberari barregurea eman behar dio, eta hori da sketcha bide onetik doan seinalea.

Aurtengo denboraldia, noiz hasiko da?

Datorren astean hasiko gara. Astelehenean *Euskolegas* eta eguenean *Vaya Semanita*. Ezin dut ezer aurreratu, baina berrikuntzekin hasiko gara.

Euskal Herrian ez dela ligatzen esaten duzue behin eta berriz *Vaya Semanita*. Ezaguna izanda gehiago ligatzen da?

Nik badaukat neskalaguna, oso polita eta jatorra, gainera. Lagunek askotan esan izan

didate telebistan irtengo ez banintz ez nukeela bikoterik edukiko. Momentuan barre egiten dut, baina beste batzuetan neure buruari galdetzen diot, "arrazoia ote dauka?" Eta horrek ematen dit zer pentsatu. Telebistan irteteak lagundu egiten du, baina Euskadin ez da txortan egiten.

Nola moldatzen zara ezaguna izanda?

Egunaren arabera, hobeto edo okerrago moldatzen naiz. Badirudi ezagunok ezin dugua egun txarrik eduki. Beti umore onez egon behar dugula ematen du. Batzuek ez dute ulertzen ez nagoela lanean. Soldatan doala diote, baina nik, esaterako besteei begiratu ahal izatea faltan botatzen dut. Aste Santuan, esate baterako, Parisera joan eta lasai-lasai jendeari begiratzea sekulakoa da niretzat. Hemen askotan lurrera begira joaten naiz. Oro har, baina, jendea ondo portatzen da nirekin. Beste aktore batzuek esperientzia txarrak izan dituzte jarraitzaileekin, baina nik momentuz ez dut horrelakorik eduki.

Aktore asko Euskal Herriatik Madrilera joaten dira lanera. Zuk horrelakorik egiteko asmorik ba al daukazu?

Momentuz oso gustura nago Euskal Herrian. Aktore izateko aukera egin nuenean banekien ez nuela lan egonkorra edukiko. Une honetan lana badaukat, eta aprobetxatu egin behar dut.

Noiz eta nola erabaki zenuen aktore izan nahi zenuela?

Etxean nengoen, aitarekin telebista ikusten. *Tarde de perros* filma ikusten ari ginen, eta bat-batean Al Pacino irten zen eszenan:

pistola batekin sartu zen banketxe batean, zoroaren pare, "denak lurrera, denak lurrera" garrasika. Ez dakit bere antzezteko modua izan zen, ala umea nintzelako gehiago harritu ote ninduen, baina une hartan esan nion aitari aktore izan nahi nuela. Eskolako antzerki taldean sartu nintzen, eta, gero, bat-tak bestea ekarri zuen.

Joan zen astean Elgoibarren izan zinen *Cocidito Madrileño* antzezlanaren prestatzen. Antzerkia ala telebista gustatzen zaizu gehiago?

Diferenteak dira, erabat. Aspaldian ez dut antzerkirik egin, eta, egia esaten badut, oso gustura nabil. Telebistan 30 segunduko tartean dena eman behar duzu, eta antzerkian denbora gehiago dago. Taula gainean zaude, zuzenean da, jendea daukazu aurrean... Esperientzia polita, zirrargarria eta aberatsa da, nire ustez.

Elgoibarrera ere etorriko zarete antzezlanarekin?

Bai, jakina. Estreinaldia Bilboko Arriagan izango da, baina Elgoibarrera ere joango gara. Herriko Antzokia gainera, izugarri gustatu zait. Antzoki zaharren usaina dauka, eta Portugaleteko antzokiaren antza hartu diot. Umetan joaten nintzeneko oroitzenak etorri zaizkit gogora.

Hemendik aurrera, zertan ikusiko zaitugu?

Vaya Semanita, *Euskolegas* eta *Cocidito Madrileño*-rekin nahikoa daukat. Ez daukat beste ezertarako denborarik. Neskalaguna ere kexatu egiten zait denbora gutxi eskaintzen diodalako.

“Telebistan irtengo ez banintz, ez nukeela bikoterik edukiko esaten didate lagunek”

ERROBERA GAINKO KONDAIRAK

Skull Riders taldeak motorren kontzentrazioa antolatu du, hirugarren urtez segidan. Motor ikuskizuna, motorren erakusketa eta *Bocanada* rock taldearen kontzertua izango dira, besteak beste, asteburuko ekitaldiak. Horren harira, Venerando Cid, Juan Manuel Torres eta Miguel Borreguerorekin berba egin du **BARRE**Nek, gurpil gaineko pasioaz. Skull Riders taldeko hiru kide dira, errepideko garezurrak, hain zuzen ere, eta gaurtik aurrera, *calaveras* hirukotea.

Ainhoa Andonegi

Motorrak lotzen ditu Venerando Cid, Juan Manuel Torres eta Miguel Borreguero. Astean zehar bakoitzak bere bizimodua dauka, baina domeketan motorrean ibiltzeko elkartzen dira, Skull Riders taldeko gainontzeko kideekin. 30-40 lagun inguru biltzen dira guztira. Eibarko, Ermuko eta Elgoibarko jendeak osatzen du Skull Riders, eta eguraldiak lagun-tzen badu, ez dute hutsik egiten. Buruko zapia jantzi, eguzkitako betaurrekoak ipini, eta taldeko bandera motorrean jarrita ibiltzen dira han eta hemen.

Ezkerrean, Miguel Borreguero Caceresen. Eskumako argazkia Segovian aterata dago, eztei-bidaian.



EZKON-BIDAIA BI ERROBERATAN

Miguel Borreguerok 62 urte ditu, eta bera da Skull Riders taldeko zaharrena. Gaur egun Yamaha 1.100cc-ko motorra dauka, eta oso gustura dago, baina horren aurretik hamaika bizipen izan zituen. 1970. urtean hasi zen motorrean ibiltzen, eta gidabaimena atera aurretik, bigarren eskuko Ducati motorra erosita zeukan. “Azterketa gainditu genuenean jendea ospatzera joan zen, baina ni motorrean ibiltzera etorri nintzen”. Gaztea zen, eta motorra zeukan. Herriko askoren inbidia zen. Juan Manuel Torresek horrela gogoratzen du: “Hamar urteko aldea daukat Miguele-

kin, eta ondo akordatzen naiz motorra ekarri zuen egunaz. Nik hamabi urte inguru nituen, eta aho zabalik begiratzen nion. Sekula ez zait ahaztuko ezkon-bidaia egitera joan zeneko eguna”.

Miguelek motorrean egin zuen ezkon-bidaia. Gasteizen ezkondu zen arabar batekin. Bertatik abantatu, eta Burgos, Segovia, Caceres, Toledo, Albacete, Valentzia, Castello, Bartzelona, Lleida, Zaragoza eta handik Elgoibarrera etorri ziren. 3.500 kilometro egin zituzten bi astean! Garai hartarako, sekulakoa izan zen. Hamalau urte inguru ibili zen Ducati motorrarekin, eta gero emaztearen lehengusu bati saldu zion. Hogei urte baino gehiago pasatu dira ordutik, eta orain motor hura berreskuratu egin du: “Ez dauka dokumentaziorik, baina badabil”, dio aho beteko irribarrearekin.



Ezkerretik eskumara: Miguel Borreguero



Borreguero, Juan Manuel Torres eta Venerando Cid, Idotorbe-San Pedrorra bidean.



Miguel Borreguero eta emaztea Urasandin.

Ezkundu aurretik ere, demasak egindakoa da Miguel. Neskalaguna Gasteizen bizi zen, eta, Arlaban portua elurtuta egon arren, ez zen etxean gelditzen: “Lau aldiz erori nintzen behin Gasteiztik Elgoibarrera bidean”. Zorionez, ez du sekula istripu larririk eduki. Beste behin, Altsasutik Elgoibarreraino argirik gabe etorri zen: “Ni gidari, eta atzean laguna linternarekin errepidea seinalatzen!”. Gaur egun kartzelan sartuko luketela esan du barrezka.

A-8 AUTOPISTAKO ESTREINAKO BIDAIARIAK

Juan Manuel Torres 14 urterekin hasi zen motorrean ibiltzen. Mobillette zahar bat zeukala gogoratzen du, eta gidabaimenik gabe ibiltzen zen: “Bost durotan bi gasolina litro eta olio pote bat erosten genituen San Frantzisko kalean zegoen gasolindegian!”. Escape izeneko motor taldea sortu zuen, beste lagun batzuekin, eta Plaza Txikiko baratzetan ibiltzen ziren motorrak prestatzen: “Hango bizilagunek ez naute sekula ahaztuko! Zelako zarata ateratzen genuen! Kokoteraino zeuden gurekin”.

Hala ere, oroitzen onenen artean, A-8 autopistako estreinako bidaiaria izan zela azaldu du Torresek, malko artean. Akordatze hutsarekin emozionatu egin da: “Oraindik zabaldu gabe zegoen autopista, eta lagun batekin sartu nintzen gaez. San Rokeetik Ermuraino joan ginen 49 cc-ko motor batean”.

Gaur arte, zazpi edo zortzi motor eduki ditu. Guztiek izan dute zeozer berezia, baina Bultaco batek oso oroitzen onak ekarri dizkio: “Estatu Batuetako bandera margotu nion motorrari. Guretat amerikarrak sekulakoak ziren, eta haiek miresten genituen”. Galiziaraino joan zen Bultaco harekin, eta ia Madrilan agertu zen: “Galdu egin ginen, motorra hondatu egin zitzaigun, istripua izan nuen... baina ez zitzaidan ezer gertatu”. 52 urte ditu, eta zaletasun asko izan ditu Juan Manuelek. Espeleologia eta fosilak bilatzea ere gustuko du, baina orain motorra da bere pasioa.

AZKARATE ZAHARREKO MULTAK

Motor txikiekin hasi zen Venerando motorren munduan barne-
ratzen, baina gaur egun Harley Davidson motorra dauka. Azkarate-
ko bide zaharrea makina bat bizipen izan ditu. Emaztea azkoitia-
rra du, eta gaztetan bidaia asko egiten zituen errebueltaz beteriko
bide horretan. Gau batean hiru isun jarri zizkioten guardia zibilek,
baina “ez ziren etxera iristen, eta ez genituen ordaintzen”. Ordu har-
tan, 50 cc-ko motorrean ezin ziren bi lagun joan, “baina beti bi joa-
ten ginen”, gogoratzen du Venerandok. Guardia zibilek behin atze-
ko lagunari Azkarate gainean jaisteko esan zioten. “Oinez jaitsi zi-
tuen metro batzuk, eta apur bat beherago jaso nuen. Txarriduna in-
gurura iritsi ginenean, Guardia Zibilak zain genezkan!”. Ordurako,
ordea, oinez zetozen, eta ez zuten isunik jaso.

Skull Riders taldeko kideak, domekako irteerarako prest.



Venerando Cid bere estreinako motorrarekin.

EMAZTEAK ERE MOTORZALEAK

Hiru adiskideak ados daude kontu honekin: “Emaztea motorzalea
ez bada, akabo”. Miguel Borreguero hogeitau urte inguru egon zen moto-
rik gabe, eta eztabaida bat baino gehiago izan zituen emaztearekin, be-
rriz ere motorrean ibiltzeko gogoia zeukala esan zionean. Kosta zitzaion,
baina azkenean konbentzitu zuen. Zorionez, hiruren emazteek gustuko
dituzte motorrak, eta domekero ez bada ere, gehienean eurekin irteten
dira. Atzean joaten dira, eta *Paketearekin* bidaiatzen dutenean kontu
handiz ibili behar izaten dute.

Normalean poliki ibiltzen dira, paisaiak ikusteko eta bidaiatzeko gozatzeko,
baina batzutan azeleragailuari sakatzeko gustatzen zaie. 150 edo 160
kilometro orduko abiadura izan da gehien hartu dutena. “Emazteak
saihetsak estutzen dizkit azkar joaten banaiz”, dio Venerandok, barre ar-
tean. Miguelek, ordea, azaldu du bere emazteak behin baino gehiago-
tan loak hartu duela. “Kaskoarekin jotzen nau buruan eta berehala igar-
tzen diot lo dagoela”. Juan Manuel Torresen esanetan, bere emazteak
ez du hutsik egiten domeketako zitan. “Aurten bost domekatan baka-
rik huts egin dugu”.

MOTORREAN, ORAIN ETA BETI

Afizioa ez da aldatu, baina egoera diferentea da. “Gaur egun diru
apur bat izanez gero, ez dago motorrean ibiltzeko zailtasunik”, dio Juan
Manuelek. Baina lehen motorra zeukatenean gehiago ligatzen zutela kon-
tatu dute. Zailena mekaniko lanak egitea zen. Ez zeukaten dirurik, eta
motorra erostea zaila zen, eta konpontzea zer esanik ez. “Norberak egi-
ten zituen konponketak, geu ginen mekanikoak”. Jantzkerak ere izugarri
aldatu dela aipatu dute. Lehen ez zeukaten gaur egungo arropak eros-
teko dirurik, eta hotz handia pasatzen zutela gogoratzen dute, baina ba-
zekiten nola berotu, barrutik bai behintzat: “Sarri-sarri geratzen ginen ta-
bernetan kopatxo bat hartzen! Eskerrak alkoholemia kontrolik ez zuten
egiten!”.

Urteak ez dira alferrik pasatzen, baina gaur egun ere, motorrak libre
egiten ditu, eta gazteago sentitzen dira. Skull Riders, taldearen izenak
dioen moduan, errepideko garezurak dira, eta hala izaten segitzeko as-
moa dute gorputzak iraun artean.



Juan Manuel Torres lau urterekin motor gainean.

lanbide

Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

Lanbide Elgoibar

Gabriel Krutzelaegi, 8
20870 Elgoibar
Tel.: 943 744 425
Faxa: 943 740 618
e-mail: elgoibar@lanbide.net
www.lanbide.net

Lan bidea
El camino
hacia el empleo



Lanbide, Eusko Jaurlaritzak eskuera jartzen dizun Euskal Enplegu Zerbitzua da eta lana bilatzeko prozesuan laguntza eta orientabidea eskaintzen dizu.

Beren lehen enplegua bilatzen ari direnei, langabezian daudenei, lan-merkatura itzuli nahi dutenei eta lanean arituta ere, enpleguz aldatu nahi dutenei zuzentzen gara eta baita langileak behar dituzten enpresei ere.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIANTZE
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES



DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES

EUROPAKO ELKARTEA
UNION EUROPEA

Europako Funtse Sozialak
Fondo Social Europeo



GIPUZKOA BIZKAIA ARABA
NAFARROA IPARRALDEA KANTABRIA
ASTURIAS GALIZIA SAGARDOA



**EIBARREN
UNTZAGAN**

**Urriak 3,
zapatua**

**12.00-13.30
18.00-amaitu arte**





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Jesusa akorduan daukagula

Hala ekingo diogu, bai, 2009-2010 ikasturteko Tertuliak programari. Egitasmoa martxan jarri eta laster esan zenigun baietz. Prest zeundela euskaraz egiteko zailtasuna dutenei laguntzeko. Eta hala hasi zinen tertulian, harekin eta honekin, zurekin zeudenen gozamenarako. Markinako eta Elgoibarko euskara bat eginda, hamaika gairen inguruan, goxotasuna eta laguntasuna bistaritzen ziren, batez ere, zure begi eta ezpaine-tan.

Gaixotu zinenean ere ez zenuen gurre artetik alde egin. Unerik gogorrenetan huts egin zenuen, baina ahal zenuen guztietan azaltzen zinen asteroko zitara. Euskara maite zenuelako; euskaraz jardun nahi zutenei laguntzeko pronto zeundelako. Gogorra izan da, badakigu, baina ogi gogorrari hagin zorrotza sartu diozu, eta bizirik egon zara heriotzak eraman zaituen arte. Eta, ez pentsa, hori ez dugu denok lortzen. Samurtasuna sumatzen zen zure azalean, baina bistan dago emakume gogorra zinela.

Aurten ezingo dizugu etorri nahi edo ahal duzun galdetu, Jesusa. Baina, ez arduratu, azalduko da bateren bat zuk lagatako hutsunea betetzeko borondatearekin. Ez ditugu bakarrik lagako tertulian euskaraz jardun nahi dutenak. Zuk, berriz, segi inguruan daukazune euskaraz hitz egiten. Hor ere, seguruenez, izango da zure laguntza estimatuko duenik.

Tertuliak programako lagunak ☺

Etorkizun demokratiko baten alde

Amnistiaren Aldeko Mugimenduan aritzeagatik 21 laguni jarritako espetxe zigorra berraztertu zuen asteazkenean Espainiako Auzitegi Gorenak. Amnistiaren Aldeko Batzordeak (AAB) eta Askatasuna "erakunde terroristak" direla ebartzi zuen Auzitegi Nazionalak, eta haietan aritzeagatik 8-10 urteko espetxe zigorra jarri zien 21 laguni. Haietako hamabi espetxean zeuden asteazkenean arte.

Gutun hau idazterako orduan ez dugu epaiaren berririk. Aurrekariak ikusita, ordea, harritzekoa litzateke defentsaren helegitea onartzea, eta epaiketa artxibatzeari. Beraz, litekeena da beste bederatz lagunak aurrerantzean espetxeratzea.

Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta Askatasuna ez dira talde "terroristak", politikoak baizik, eta lan politiko eta soziala egiteagatik daude epaituak oinarri juridikorik gabeko epaiketa desitxuratu honetan.

Honen moduan, datozen asteetan beste hainbat epai izango dira aztergai: gazte erakundeak, Egunkaria, Udaltzinta, EHAK/ ANV,...

Horrek guztiak, bizi dugun salbuespen egoera islatzen digu. Errepresioaren muga guztiak gainditzen ari dira. Lan politiko-soziala gogor kolpatua da herri honetan, eta, jada, argazki xume bat oratzeagatik "terrorismo gorespena" egozten zaio argazkia duenari.

Esan beharra dugu lan politiko-soziala eta elkartasuna ez direla etengo, eraso eta epaiketa fartsa guztien gaine-

tik areagotu baizik. Elkartasuna adieraztea ez dela delitu, herri honen alde lan egitea guztiz zilegia dela, eta deialdia luzatzen dugu hurrengo egunetan egingo diren mobilizazioetan parte hartzera. Etorkizun demokratiko baten alde, amnistia eta askatasuna!

Elgoibarko AAM ☺

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Eva Garcia

Aireportuak atzealde interesgarriena ematen dio, niri bezala, beste batzuen istorioak irudikatzea atsegin duen norbaiti.



Miriam Garcia

Batzuetan denbora gehiago pa-

satzen dugu aireportuetan itxaroten, hegan egiten baino. Izkin batean esertzea eta beste bidaiariei begiratzearen sinpletasuna atsegin dut, haien esperientziak, haien etxeak edo haien sentimenduak asmatzen.

Emozio guztiak bertan aurki ditzakegu: zorientasuna, frustrazioa, gogaitasuna, urduritasuna, arriskua... Haur batekin bidaiatzen ari den ama gazte bat, azterketak bukatzen dituen beste bat, oporretan doan familia bat eta, batez ere, negar egiten ari den bidaiari hori, norbaitekin berriro bilduko delako, edo, min sakonarekin, maite duen norbait inoiz gehiago ikusiko ez duelako.

Gure bizitzaren momentu batetik beste baterako trantsizioa marrazten du aireportuak, gure iragana eta etorkizuna islatzeko baimena ematen digun bitartean.

“Aireportuan esertzea eta beste bidaiariei begiratzea atsegin dut”

Noizean behin, nik ere zer gertatzen ari den ez dut ulertzen. Maizatzen ditudan pertsonak eta lekuak atzean gelditzen dira: hegazkinean sartzean nago, milaka kilometrotara hegan egiteko eta nire bizitzaren beste kapitulu bat idazteko prest. Nire ingurura begiratzen dut eta zenbat kapitulu gehiago idazten ari diren galdetzen diot nire buruari.

Aireporturako bidaia sinple batek pentsamendu eta sentimendu gehiegi adierazten ditu. Zenbat alditan egin dut hau azken urte hauetan? Bertan nago, eta esperientzia horiek guztiak dakizkidan arren, nire sabelean korapilo gogor hau ez da desagertzen.



Aireportu hitzak agur zaporea duela irudituko zait beti. Eta horien barruan sentimendu asko gordetzen direla egia den arren, aireportuek leku hotzen eta bakartien itxura hartzen dute nire buruan. Pa-satzeko bakarrik egindako lekuak, inorena ez den tokia.

Aireportuek ez daukate, adibidez, tren-geltokien erromantizismoa, beharbada bidaia bera ere ezberdina delako. Hegazkinekin bidaiak bidaia izateari lagatzen dio, eszenatik aldatzeko bide bihurtzeko bakarrik. Irteerari eta helmugarri begiratzen diogu soilik, eta erdian dagoen beste guztia –hau da, *bidaia*– galdu egiten da.

“Hegazkinak etorkizunera bidaltzen gaitu bat batean, egokitze denborarik gabe”

Bestalde, leihatilatik paisaia nola aldatzen den ikustea egokitze era bat da, nolabait ere. Beraz, normala da –nire kasuan behintzat– aireportuek larrimina eragitea, hegazkinak bat batean iraganetik etorkizunera botatzen baikaitu, bidean egokitu ahal izateko denborarik izan gabe ere.

Baina... ez genuen ibilaldi hau hasi batzuetan aldaketak beharrezkoak direla esanez? Aurrera ba!

Gure bizitzaren hurrengo kapituluak orri zuriak dauzka oraindik, eta, dirudienez, oraingo honetan, eszenatokia konpartitzeko bueltatuko gara. Gure zirkuluak berriz ere elkartuko direla dirudi.

(...Hala eta guztiz ere, nire sabelean korapilo gogor hau ez da desagertzen...).



Elgoibarko Udala



Ostalaritza establezimenduetan erretzea debekatu nahi du Jaurlaritzak.

Zer iruditzen zaizu tabakoaren kontrako legea indartzea?



Jose Antonio Gonzalez
59 urte, mekanikoa

Oso gaizki. Taberna askotan berrikuntzak egin zituzten lehen, erretzaileentzako eta ez erretzaileentzako guneak bereizteko, eta, orain, berriz aldatu nahi dute legea. Gainera, soziedadeetan ere ezingo dela erre diote. Hori bazkideek erabaki beharko lukete, eta ez legeak.



Maria Cruz
68 urte, etxekoandrea

Oso ondo. Senarra biriketako minbiziak jota hil zitzaidan, eta alabak ere asko erretzen du. Gainera, jendeak nire inguruan erretzea ez zait gustatzen. Nire ustez, Estatuak tabakoa saltzea debekatu egin beharko luke. Legeak atera eta eurak dirua irabaztea ez dago ondo.



Viktor Makovka
28 urte, mekanikoa

Ondo, orain arte indar gutxi eduki du, eta enpresetan askok ezkutu erretzen segitzen dute. Jate-txeetan debekatzea ondo dago, baina jai giroko tabernetan ez erretzea gehiegizkoa da. Nola ligatu neska batekin? "zigarrorik bai? Ez, ez erretzaileen gunean nago".



Mariaje Agullo
53 urte, langabetua

Gaizki, erretzailea naiz, eta nire ustez, ostalaritza establezimenduetan erretzea ez lukete debekatu behar. Erretzaileentzako eta ez erretzaileentzako guneak bereiztea ondo ikusten dut, baina, osasuntsuagoa izan arren, erabat debekatzearen kontra nago.

ESKERTZA

RAFAEL RODRIGUEZ UNCHALO



2009ko irailaren 22an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



III. URTEURRENA

IDOIA LENIZ AZKARATE



2006ko irailaren 22an, 42 urte zituela hil zen.
"Denbora aurrera doa etengabe ezin ahaztu, ordea, maite izan ditugunak.
Beti gogoan izango zaitugu."

Zure lagunak



**Kiroldegiko sarrera ez dago umeen autoarekin sartzeko prestatuta:**

“Askotan kexatu izan gara gai honen inguruan, baina oraindik ez dute arazoa konpondu. Kiroldegiko sarrean eskailerak daude, eta umeen autoarekin sartzeko zailtasun handiak izaten ditugu. Elbarrituentzako ere ez dago prestatuta, eta, nire ustez, hori lehenbailehen konpondu behar da. Udala lan handia egiten ari da irisgarritasunaren alorreran, baina gune batzuek lehenbaitasuna eduki behar luketela iruditzen zait. Kiroldegia eta Merkatu Plaza, esate baterako, gune garrantzitsuak direla uste dut”.

**San Rokeko espaloia konpondu egin beharko litzateke:**

“Kiroldegira bidean dagoen espaloiak traba egiten du. Zati batean espaloia luzatu egiten da, eta autoen aparkatzeko gunean sartzen da. Auto txikiak sartzen dira, baina autoa apur bat luzea bada, bideraino irteten da. Oso arriskutsua da. Nire ustez, konponbide erraza dauka horrek, eta espaloia apur bat moztuz gero, askoz hobeto geratuko dela iruditzen zait.”.

**Deba ibaian arrainak ugaritu dira:**

“Azkenaldian Deba ibaian arrainak ikusten dira, eta niri poz handia eman dit horrek. Garai batean, Deba ibaian bainua hartzen genuen, eta arrainak ikustea ohiko gauza zen. Gerora, ordea, gauzak okerrera joan ziren, eta ibaia oso kutsatuta egon da. Azken urteotan lan handia egiten ari dira ibaia garbitzeko, eta badirudi bide onetik doazela. Akaso, egunen batean, berriz ere ibaian bainua hartzeko moduan egongo gara”.

Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12



ESKERTZA

SEBASTIAN ETXABE ETXANIZ

2009ko irailaren 17an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

TERESA FERNANDEZ CONDE

2009ko irailaren 18an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Guass dantzalekuaren lokala bereganatzeko asmoa azaldu du Elgoibarko Udalak

Plan Nagusia gauzatu artean, aparkalekua egiteko aukera aztertzen ari da

Guass diskotekak sortzen dizkie arazo larrienak herritarrei, Udalak egin berri duen ikerketa baten arabera. Gizagune Fundazioaren laguntzaz egin dute herritarren arazoei buruzko diagnostia, hiru alorretan banatuta: Udala, elkarteak eta herritarrak. Ikerketa horren arabera, oro har, bizikidetzaren arazo larririk gabeko herria da Elgoibar, baina hiru alorrek diote Guass dantzalekuaren inguruan arazoak sortzen direla. Alfredo Etxeberria alkatearen esanetan, arazo horiek konpondu nahi dituzte, eta Udalak Guass diskotekaren lokala bereganatzeko asmoa dauka. Plan Nagusiko proposamenaren arabera, ingurune horretan etxebizitzak egingo dituzte etorkizunean, baina, ordu arte, aparkaleku bat egiteko gune egokia dela adierazi du alkateak. Udaleko arduradunek hiru bilera egin dituzte lokalaren jabeekin, eta hainbat proposamen egin dizkiete. Negozioaren arduradunek urriaren 31ra arte daukate lokalaren kontratua, eta ordurako erantzun bat jasotzea esperu du alkateak.



Txankakuaren feriaren balorazio positiboa egin dute antolatzaileek

Txankakuaren urteroko feriak kalera atera zituen merkataria eta herritarrak joan zen zapatuan, eta eguna euritsu esnatu bazen ere, jende asko ibili zen Plaza Handian. Antolatzaileak pozik agertu dira herritarrek emandako erantzunarekin, eta eskerrak eman nahi dizkiete feriara gerturatu ziren guztiei. Elkarteko kideek 16 postu prestatu zituzten euren produktuak erakutsi eta saltzeko. Horrez gain, edari eta pintxoak, haurrentzako puzgarriak eta txu-txu trenaren ere jarri zituzten. Lagun gehien batu zituen ekintza, ordea, 100 euroko sei erosketa txeeen zozketa izan zen. Cristina Garcia, Olga Sousa, Gemma Agirregomezkorta, Rosa Iriondo, Loren Sanchez eta Izaskun Urbieta izan ziren irabazleak.



Onik agertu da Mendaron desagertutako emakumea

Joan zen astelehenean 76 urteko emakumea desagertu zen Mendaron, baina zorionez, egoera onean aurkitu zuten hurrengo egunean.

Astelehenean, 21:30ean salatu zuten familiak emakumea desagertu zela, eta 5:00ak aldera arte aritu ziren galdutako emakumearen bila. Ertzain-

tza, Gurutze Gorria, DYA eta hainbat herritarrek jardun zuten haren bila, baina gaueko iluntasunean ez zuten emakumearen arrastorik aurkitu.

Martitzen goizean, berriz ekin zioten bilaketari. Mendaroko sarreran, ospitale inguruan, ibai-aldean, industriagunean, Garagartza auzoan eta

Altzola bitartean jardun zuten bila. Azkenik, Kortaberri baserri inguruan aurkitu zuten emakumea, mendi-bide batean. Alabaren etxetik oso gertu zegoen. Emakumea Usurbilgoa da, eta Mendaro ondo ez ezagutzea izan daiteke galdu izanaren arrazoietako bat.

Lekua **Gaztetxea**



Astelehenetik martitzenerako gauean lapurretan egin zuten Gaztetxean. Bi ordenagailu, dirua eta musika ekipoa ostu zituzten, eta, gainera, lapurrek lokala hankaz gora laga zutela adierazi dute Gazte Asanbladako kideek. Hase-re daude gertatutakoarekin, "lapurreta guztiak dira lotsagarriak, baina oraindik lotsagarriagoa begitانتzen zaigu herriko gazte guztiona den lokalean lapurreta egitea. Herri guztiari lapurreta egitearen modukoa da" adierazi dute.

Zenbakia 512.000

Hilabete honetan hasiko dituzte Idotorbe-San Pedro auzoko lokala egiteko obrak, eta 512.000 euroko aurrekontua izango du proiektuak. Probalekuaren eta frontoiaren aldamenean eraikiko duten lokalak solairu bakarra edukiko du. 300 metro koadroko eraikina izango da, eta hiru gunetan banatuko dute. Construcciones Campezo enpresa izango da obraren arduraduna, eta lanak urtebeteko epean amaitzea aurreikusten dute.

Protagonistak **Mausitxa eta Txillarre**

Mausitxa eta Txillarre baserriak izango dira iraileko azken zapatuko ferriako protagonistak. Antolatzaileek aipamen berezia egin nahi diote Mausitxari Ordiziako gazta lehiaketa irabazteagatik, eta baita Txillarrerri, barazkien arloan bigarren saria eskuratu zuelako. Hortaz, 11:00etatik aurrera Mausitxako gazta irabazlea doan dastatu ahal izango da Nafarroa plazan. Gaztari laguntzeko, Lizundia txabola baserriko sagardoa ere banatuko dute. Bestalde, hilero bezala, Elgoibarko zenbait baserriarrek nekazal produktuak jarriko dituzte salgai, ganadu erakusketa ere izango da eta trikitilariak jardungo dute giroa alaitzen.



Mausitxa



Txillarre

Guatemalako umeei laguntzeko errifaren zozketa


Guatemalako umeei laguntzeko diru bilketa egin du elgoibartar talde batek, eta, horretarako, errifak saltzen jardun dute uda honetan. Dagoeneko egin dute zozketa, eta 344 zenbakia izan da sari-duna (202 erreserbakoa). Irabazleak janari ekologikoz beteriko otarre bat jasoko du.

Yoga ikastaroak Elgoibarren eta Mendaron

Yoga ikastaroetan parte hartu nahi dutenek Elgoibarren eta Mendaron izango dute aukera. Elgoibarko ikastaroa martitzen eta eguenetan izango da, goizez edo arratsalde. Bestalde, urriaren 1etik aurrera, Mendaron ere eskainiko dituzte yoga klaseak. Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko, ondorengo telefono hauetara deitu daiteke: 785 722 131 eta 943 748 593

Ane Perezek minbiziaren kontrako borroka galdu du

Azken urteotan minbiziaren kontra aritu da borrokan Ane Perez elgoibartarra, baina azkenean ezin izan dio gaixotasunari aurre egin. Umerez, bizipozez eta energiaz beterik zegoen BARRENEk elkarriketa egin zionean, 2007ko abenduan. Urte berean, Pirritx eta Porrotx pailazoen berari eskaini zioten euren saioa, eta antzezle lanak egin zituen Anek berak. Azkenaldian, baina, gaixotasunak aurea hartu zion, eta eguaztenean hil zen, 19 urterekin.



kili barren



TERMITEN USAINEAN

Termitak uxatzeko modua aztertzen dihardute aspaldian Mendaron. Begi bistaz nekez ikus daitezke, baina konturatu orduko kalte handia egin dezakete. Sitsen antzera, egurrezko egiturak maite dituzte, eta hezetasuna dagoen lekuan azkar ugaltzen dira. Udaberri aldera, hegoak sortu eta hegan egiten dute, askotan aldameneko etxeetara. Langileak eta azkarrak dira, eta, egurra bilatzeko ahalegin horretan, hormarik gogorrenak zeharkatzeko gai dira, baita hormigoia bera ere. Mendaron, Garagartzako eta Azpilgoetako egurrezko hainbat etxetan aurkitu dituzte.

Ainara Argoitia



Garagartzako Abadetxea ezkerrean, eta Potxerokua eskuinean. Termitak hartu dituzte biak.

Hamaika bilera, eta beste horrenbeste atzera-aurrera. Mendaroko Udalak aspaldi egin zuen termiten kontrako proposamena, baina uste baino zailagoa egiten ari zaió bizilagun guztiak ados jartzea, bereziki Garagartzako auzoko etxeen jabeak konbentziaztea. Bizilagun batzuek ez dute beharrezko ikusten tratamendu hori egitea, dela etxea bota nahi dutelako, edo dela arriskurik ikusten ez dutelako. Beharrezko ikusten dutenetako beste askok, berriz, ez dute bidezko ikusten eurek jartzea ordaindu nahi ez dutenen zatia, ezta ordaindu nahi ez duten horiek besteen borondateaz aprobetxatzea. Martitzenean egin zuten udaletxean ustez azkeneko bilera, eta bizilagunek han hartutako konpromisoa beteko duten itxaropena du Irune Berasaluze alkateak.

2007ko legealdi amaieran eskatu zion Udalak Cidemco enpresari herriko egurrezko etxeen gaineko diagnostiko bat egiteko. Garagartzako, Azpilgoetako eta Mendarozabaleko eraikinetan termitarik bazegoen edo

noizbait egon zen ikertzeko agindu zion orduan, eta 2008an, etxez etxe ibili ziren teknikariak termiten peskiz. Bildutako informazioarekin mapa bat osatu zuten, eta haren arabera, Mendarozabalen ez zegoen termitarik, ezta Trinitateko elizan ere, askok uste zezaketaren kontra. Garagartzan, aldiz, Abadetxean, Barberoneko garajeetan, Potxerokuan, garai batean okindegia zegoen eraikinean, Txoferranekoan, Bodegan, eta Abarketeronekoan ere termitak aurkitu zituzten. Azpilgoetan ere hiru-lau eraikinetan topatu zituzten, tartean Estankoan eta Emeterionean.

Diagnostikoa ikusita, termiten kontrako teknika egokiena zein izan zitekeen aztertzen jarri zen Udala, aurrekontuak eskatu baino lehen. Nagusiki, bi teknika erabiltzen dira: tratamendu kimikoa, eta amu bidezkoa. Tratamendu kimikoa emateko, baina, egurrezko eraikinen habe eta zutabeak bistaratu egin behar dira lehenengo, gero haietan produktu kimiko bat injektatzeko. Produktu horrek termitak hil, eta ba-

bes hesi bat sortzen du, gehiago etorri ez daitezten. Teknika horrek, baina, habeak bistaratu beharraz gain, beste bi eragozpen handi ditu: batetik, eraikin bakoitzari eman behar zaiola, eta bestetik, termitak hil arren, ez diola haien habiari eragiten. Hala, habi hori laga eta termitak beste etxe batera mugitzeko arriskua egoten da.

Hori guztia dela-eta, amu bidezko tratamendu osoagoaren alde egin zuten teknikariek. Zelulosazko pasta edo oreka erabiltzen da teknika horretan amutzat. Ore hori kutxa berezietan sartzen da, eta termitak ibili ohi diren lekuan jarri. Zelulosa hori jatean, termitak kutsatu egiten dira, eta horiek gainerako guztiak kutsatzen dituzte gero, behin habiari iritsitakoan. Era berean, tratamendu kimikoa baino askoz merkeagoa ere bada, teknika hau bizilagun guztien artean ordaindu daitekeelako, ez delako berez etxez etxe egin beharrekoa.

Poltsikoari eragiten dion neurrian, baina, merkeagoa izateak ez du esan nahi denen gustukoa denik. Udalak hasierako diagnostikoaz gain, Cidemco enpresak tratamendua aplikatuko duen enpresari egingo dion jarraipena ordainduko ditu, eta tratamendua ematearen gastuak bizilagunen artean ordaindu behar dituzte. Tratamendua eraginkorragoa izateko, hala ere, egurrezko etxeak dituzten guztiak egin beharko dute, eta horrek zeresan handia eman du. Batetik, termitak izan edo ez, etxe jabe batzuek ez dutelako beharrezkoa ikusten tratamendu hori egitea, eta bestetik, euren etxea aseguratzeke prest daudene-



tako askok ez dutelako bidezko ikusten batzuek ordaindu eta onurak denek jasotzea.

Hasieran, portaleko 900 euro ordaindu behar ziren, baina Garagartzakoak ados jartzen ez zirela ikusita, Udalak auzo bakoitzak bere aldetik egitea proposatu zuen, Azpilgoetako guztiak egitearen aldekoak zirelako. Era horretan, hala ere, portaleko 700 euro gehiago ordaindu behar zituzten. Tratamenduaren aldeko ziren guztiak 300 euro gehiago jarrita, aldiz, bi auzoak tratatu zitezkeen, eta azkenean, halaxe erabaki dute egitea. Dirua zaku berera botatzea. Hau da, portaleko 1.200 euro ordaintzea, eta konpondu ez diren etxeetan, bakoitzak dagokion zatia jartzea.

Urriaren 6ra arteko epea jarri dute ordaintetarako egiteko, baina batzuek aurreratu dute ez dutela dirurik jarriko. Alkateak argi utzi du borondatearen araberrako kontu bat dela, legez Udalak ez daukalako inor derrigortzerik. Ordaindu ala ez, tratamenduaren onurak, baina, denentzako izango dira, eta, okerrik ezean, gutxienez hamar urterako termitatik babesteko bidea izango dute.

BALBI ETA GREGORIO VIVES

Balbi eta Gregorio Vives neba-arrebek ez dute termitarik, baina ordaindu dute orain arte eskatu zaiena. “Etxearentzako aseguru bat da, ordaintzen ditugun beste aseguru batzuen parekoa”, dio Balbik. Bat dator Gregorio ere. “Gripearen kontrako txertoa hartzen dugu. Zelan ez dugu ordainduko etxea zutik mantentzeko tratamendua!”

Termitak pareko eraikinean daudenean, arriskua “handiegia” dela uste dute. Tratamendua ez ordaintzea “arduragabekeria handia” dela dio Balbik. Ez dute ulertzen tratamendua ez ordaintzea, eta are gutxiago termitak dituztenen kasuan. “Dirua da, baina denok dagokigun zatia ordainduz gero, ez da horrenbesterako. Kontuan izanda, beti ere, etxea salbatzeko dela. Hori bai, amorrua ematen du batzuen kontura besteek ere onurak jasotzea. Lege bat beharko litzateke”, gehitu du Gregoriok. Etxea bota eta berria egin nahi dutenek orain tratamendu hori egin ezean, gero, botatzen duten egunean, hiru aldiz gehiago ordaindu beharko dutela dio.

“Ammorra ematen du batzuen kontura besteek onurak jasotzea”

ANTONIO MARIA ALBIZU

Antonio Maria Albizuk Garagartzan dauka harategia, termitak hartutako Abadetxetik gertu, baina bere lokalean ez da ale bat agertu. Sitsa, bai, baina termitarik ez. “Tekniko bat etorri zen hona ere orain bi urte pasa, baina libre geundela esan zidan”. Bi edo hiru urtean behin, lokal guztian ematen du tratamendu berezi bat, eta ez du termiten beldurrik. “Ezer egin ezean etorriko lirateke igual, uholdeek behin baino gehiagotan hartu dutelako hau, eta termiten urak biguindutako egurra gustatzen zaielako, baina nik, tratamendu bat emateaz gain, harategian karea ematen dut bi urtean behin, eta horrek denak hiltzen ditu. Hori eman ezean nabarmen egongo litzateke hau ere seguru-seguru”.

Ez du tratamendua beharrezko ikusten. Beharrezko balitz, ez lukeela ordaintzeko arazorik izango dio, baina arriskurik ikusi ezean dirua botatzea dela uste du. “Merezki badu, garbi dago ordaindu egin behar dela. Gastatu behar bada, gastatu egin behar da, ez dago besterik. Baina dirua errekarra botatzea moduan dela iruditzen zait”.

“Gastatu behar bada, gastatu egin behar da, baina dirua errekarra botatzea da”

Haritz dantza taldeak omenaldia egingo dio Borja Urzuriaga zenari Aiastia-San Migeleko jaietan

Gaurtik hasita, makina bat ekitaldi izango dira martitzenera arte

Haritz Euskal Dantzari Taldeak urteroko moduan dantza emanaldia eskainiko du Aiastia-San Migeleko jaietan bihar. Emanaldi berezia izango da, urteetan dantza taldean jardundako Borja Urzuriaga sanmigeldarrari omenaldi beroa egingo diotelako. Martxoaren 1ean zendu zen istripu batean, 24 urterekin.

Haritz taldeak Arabako eta Lapurdiko dantzak eskainiko ditu, 22:30etik aurrera, frontoian.

Jaien hasiera, gaur

Kanpai jotzearekin gaur hasiko dira Aiastia-San Migeleko jaiak, 18:30ean. Gero, kalejira eta afaria izango dira, Ekaitz eta Arantza trikitilariekin eta Andoni Egaña eta Xabi Paia bertsolariekin.

Euskal Herriko arraza libreko ardi-txakur txapelketaren finala bihar jokatu



da, 17:00etan. Auzoko Jose Antonio Arrillagak *Linda* txakurrarekin jardungo du. Dantzen ostean, *Laket* taldeak erromeria eskainiko du. Gero, bolo txapelketa izango da.

Domeka goizean lasterketa izango da, Plaza Handitik hasita. Arratsaldean,

idi demen txanda izango da. Soarteko idiak bertan izango dira.

Jaiak San Migel egunean amaituko dira, martitzenean. Bertsolariak, pilota partidak, trikitilariak eta auzotarren afaria izango dira egun horretan. Jaien egitarau osoa ikusteko, begiratu 25. orrialdean.

Aitor Nova, dultzainero taldeko kide berria



Elgoibarko dultzaineroek Aitor Novarekin jo zuten irailaren 20ko dianan. Novak erreleboa hartu dio Victor Zubiaurre dultzainajoleari. Azken aldian, Nova kanpoan ibili arren, erreleboa betirako izango dela uste du Txomin Mujika dultzainajoleak: "Mutil jatorra, musiko osoa eta, horrez gain, dultzaina benetan asko gustatzen zaion pertsona da".

Mujika eta Zubiaurre 1972. urtean hasi ziren Ricardo Gorriti danborjolearekin batera dianetan eta jaietako hainbat ekitalditan jotzen. Euskal Herriko leku mordotan jardun dute, gainera.

Haizea emakume taldeak hainbat tailer antolatu ditu

Udazken honetarako, lau tailer martxan jarriko dituela iragarri du Haizea emakume taldeak. Informazio gehiago eskuratzeko, honako telefono honetara deitu daiteke: 680 319 002.

Ezagutu ezan hire burua izeneko tailerra irailaren 28an hasiko da, Artetxeko eskoletan, eta urrian jarraituko du.

Urriaren 26an, koadroei begiratzeko tailerra eskainiko dute. Tailer hori Kultur Etxean izango da, 17:00etik 19:00era

Urriaren 27an literatura tailerra egingo da Udal Liburutegian. Gabriel Garcia Marquez idazlearen *Cien años de soledad* liburua aztertuko dute, 18:00etik 20:00era.

Horrez gain, ingeles ikastaroa antolatu du Haizeak, Artetxeko eskolan. Urriaren 1ean hasiko da.

Uxue Alberdik estreinakoz parte hartuko du Euskal Herriko bertsolari txapelketan

Zestoan jardungo du, lehiaketako lehen saioan, urriaren 3an

Zestoan hasiko da urriaren 3an Bertsolari Txapelketa Nagusia, eta Uxue Alberdi elgoibartarrak bertan parte hartuko du estreinakoz. 2007an Gipuzkoako txapelketan egindako lan ona berresten ahaleginduko da, finalerdi-ara ailegatu zen eta.

Alberdirekin batera beste bost bertsolariak jardungo dute: Iñaki Gurrutxagak, Odei Barrosok, Jone Uriak, Oihana Bartrak eta Miren Artetxek.

Abenduaren 13an BECen Andoni Egañarekin lehiatuko diren zazpi finalistak aukeratzeko, beste bost final-laurden eta zazpi finalerdi antolatatu dituzte. Guztira, 44 bertsolariak parte hartuko dute.

Saioetako sarrerak aurrez erosteko eta norbere etxean inprimatzeko sistema izango da, www.bertsosarrerak.eu webgunean.



Laura Peralta gazteak lehen saria eskuratu du Elorriko gisatu lehiaketan



Lehenengo aldiz aurkeztu zen 13 urteko Laura Peralta elgoibartarra sukaldaritzako lehiaketa batera, eta lehen saria eskuratu zuen. Elorri gertatu zen, hilaren 12an. Sukalki Eguneko gisatu lehiaketan 105 lapiko izan ziren, eta Laurak lehen saria eskuratu zuen gazteen artean. Zailtasuna eta prestutasuna familiaratik datozkio, aitak eta osabak urte asko daramatzatelako era guztietako sukaldaritzako txapelketetan parte hartzen, eta dagoeneko hainbat txapel eskuratu dituztelako.

Tertuliak programan izena emateko epea zabalik dago

Tertuliak programan parte hartu nahi dutenek urriaren 9ra arteko epea dute izena emateko. Elgoibarren, euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak ohiturarik ez dutenekin elkartzeko egitasmoa da. 2009-2010 kurtsorako, *Nahi dozu?* lema jarri diote programak.

Izenematea Elgoibarko Izarra kultur elkartearen lokaletan egin beharko da (Ubitarte, 4). Argibideren bat behar izanez gero, 943 741 626 telefono zenbakira deitu daiteke.

Egitasmoak hamar urte egingo ditu aurrean. Euskaraz erraz berba egiten duten lagunak eta zailtasuna dutenak tertuliaren bidez elkartzen ditu.

Salsa ikastaroa Olaizaga kiroldegian

Salsa ikastaroa antolatatu du Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak. Dantza ikastaroa urriaren 5ean hasiko da, Olaizaga kiroldegian. Astelehenetan eta eguaztenetan izango dira klaseak, 20:30etik 21:30era. Prezioa 40 eurokoa izango da hileko.

Alina izango da dantza ikastaroko irakaslea. Izena emateko Olaizaga kiroldegira jo beharko da.

Musika kontzertua gaur, Mendaroko gaztetxean

Mendaroko gaztetxean kontzertua izango da gaur, barixakua. 23:00etik aurrera Descridos eta Tempestades taldeek parte hartuko dute.

Dibujo artistiko ikastaroa antolatu dute urrirako

Egur arte tailerrak dibujo artistiko ikastaroa eskainiko du urriaren 5etik 29ra. Klaseak astelehenetik eguenera izango dira, 18:30etik 20:30etara. Izena eman nahi duenak tailerreko lokaletara jo 18:00etik 20:00etara, Plaza Txikian.

Oihana Chico eta Nagore Lueches elgoibartarrek Superligan jokatuko dute aurten Eibarrekin

Espainiako Futbol Federazioak egindako aldaketei esker gorengo mailan ariko dira

Orain zortzi denboraldi Levantek irabazi zuen lehen titulu hartatik asko aldatu da Superliga. Sendotu egin da, eta lehiakorragoa egin den neurrian, erakargarriagoa ere egin da, bai jokalarientzat eurentzat eta baita zaleentzat ere. Orain arte, hamasei taldek osatzen zuten Superliga, baina denboraldi honetarako hamabi taldek osatutako bi multzo sortu ditu Espainiako Futbol Federazioak, "Superliga indartzearen". Horretarako, Gizonezkoen Lehen eta Bigarren mailako talde-

ei eta Elkarre Anonimoei egin die gonbita emakumezkoen taldeak sortzeko. Eibar izan da eskaintza hori onartu duen taldeetako bat, eta Oihana Chico eta Nagore Lueches elgoibartarrek aukera hori baliatu dute.

Orain arte, Superligan zeuden hamasei taldeak zortziko bi multzotan banatu dituzte, eta gainerako talde berriekin osatu dituzte bi multzoak. Emakumezkoen futbola sendotzeko pausoa izan dela esan du Federazioak, baina orain arte Superligan ari zirenek ez dute begi onez hartu. Atzera-

pausotzat hartu dute, eta egitasmo horren atzean fitxak ugaritzeko asmoa besterik ez dagoela arrazoitu dute. Orain arte, Superligan talderik ez zuten klubak mesederako egindako proiektua dela uste dute, talde handientzat egokitutakoa. Horrenbeste talderekin, gainera, lehiakortasuna galduko dela arrazoitu dute, Superligara igoko diren talde asko maila apalagoetatik kolpera igoko direlako gorengo mailara, bulegoetako lanari esker. Hala jaso dute Superligako hainbat jokalarik Federazioaren proiektuaren kontra sinatu zuten agirian.

OIHANA CHICO, Eibar taldeko jokalaria

Oihana Chicok zazpigarren denboraldia du aurten Eibarrekin. Harrobiko jokalaria da, talde apal batean dihardu, baina aurten maila gorenean jokatzeke aukera izango du, Espainiako Futbol Federazioak Superligan egindako aldaketei esker.



Zelan hartu duzue Superligan jokatzeke eskaintza?

Ilusio handiarekin. Maila gorenean jokatzeke aukera ematen digu, pentsa! lazko denboraldian Nazional Maila galtzetik gatoz, eta orain, kolpetik, onenekin lehiatuko gara. Gure maila neurtzeko balioko digu honek, eta txikitako ametsa betetzeko.

Hain justu ere, horixe salatu dute lehendik Superligan ari ziren jokalarietako askok. Zer duzue esateko kritika horren inguruan?

Ezer ez. Gu ezin gara horretan sartu, Klubak arteko kontua izan delako. Nik ulertzen dut Superligan aritu diren jokalarietako batzuk haserre egotea, azken batean behe-behetik hasi eta Superligaraino iritsi direlako, merezimendu osoz. Baina zuzenean igo arren, guk ere dena emango dugu. Jokalari berriak ere etorri dira gainera. Joan zen astean Athleticen kontra jokatutako lagun arteko partidaren adibidez nahiko maila txukuna eman genuen. Irabazi egin ziguten, baina ondo sufrututa. Eurek ere onartu ziguten uste baino gehiago kostatu zitzaizela irabaztea.

Zelan egokitu duzue zuen taldea denboraldi berriko?

laztik sei edo zazpi jarraitzen dugu, eta jende berria etorri da Lekeitiotik, Markinatik, Aretxabaletatik...Eibarrek jokalarien zerrenda luzea zeukan, baina azkenean batzuek atzera egin dute, eta ez dira etorri. Sakrifizio handia da. Uztailaren 23an hasi genituen entrenamenduak, eta liga hasi arte egunero entrenatzen aritu gara. Orain astelehenetan jai dugu, baina gogorra da lana eta entrenamenduak uztartzea.

Partidak ere etxetik urutiago orain, ezta?

Bai, eta horrek beste ahalegin bat eskatzen du, asteburu osoa galtzen delako. Hasi fasean gertutasun geografikoaren arabera jarri dituzte partidak, baina Las Palmasen, Oviedon, Valladoliden...ere jokatuko dugu.

Zein egoeratan dago emakumezkoen futbola?

Nik uste dut asko hobetu dela azken urteotan, eta orain askoz erakargarriagoa dela, lehiakorragoa. Guk harrobian, gureaz gain, beste hiru talde ditugu, eta Klubak asko egiten du gure alde. Inoiz ez nuen pentsatuko 14 urterekin hasi nintzenean nagoen lekuraino iritsiko nintzenik.

Elgoibartik pasatuko da Ehunmilak 167 kilometroko mendi lasterketa

Antolatzaileei laguntzeko talde bat sortu dute herrian

Elgoibartik pasatuko da Euskal Herriko Ehunmilak ultratraila, sekula egin den mendi lasterketarik gogorrenerarikoa. Uztailaren 16an irtengo dira lasterkariak Beasaindik, eta Gipuzkoako 28 herri igaroko dituzte mendiz. Elgoibarrera lurkuruzetatik sartuko dira, eta, Azkaratera jaitsi ondoren, Azkoitiko lurretatik jarraituko dute Erlora bidean. Antolatzaileen deia erantzunez, talde bat osatu dute Elgoibarraren proba horretan laguntzeko. Edozelan ere, horrelako proba bat antolatzeak dakarren lanaren jakitun, laguntzeko prest dauden guztiei dei egin diete.

Blog bat sortu dute jakingarri guztiekin (<http://ehunmilak-elgoibar.blogspot.com>) eta baita helbide elektronikoko bat ere: elgoibar.ehunmilak@gmail.com



Gipuzkoako mendi garaienak igoko dituzte lasterkariak. Guztira, 12.000 metroko desnibel positiboa izango dute, eta horrek Mont Blanc-eko ultratraila baino gogorragoa eta luzeagoa egiten du lasterketa hau.

Hamabi talderekin hasiko du denboraldia Sanlo ETKk

Sanlo ETK eskubaloitako taldeak hiru talde izango ditu aurten Euskal Ligan, eta bederatziz Gipuzkoako Ligan. Horrez gain, beste lau talde osatuko ditu alebinekin, eskubaloitako eskolarako. Asteburu honetan jokatu dituzte lehenengo partida ofizialak. Kadete mailako neskek Ermuan jokatu dute zapatuan, 16:45ean eta jubenilak ere Ermuaren kontra lehiatu dira, zapatu arratsaldean (18:30). Gainerako taldeentzat urriaren 4an hasiko da liga. Bestalde, Klubak bilera batera deitu ditu eskubaloian ari diren gaztetxo-en gurasoak. Bilera gaur izango da, 19:00etan, Kultur Etxean.

AGENDA

FUTBOLA

Zapatua, 26

11:00 Elgoibar (Txiki). – Aretxabaleta

12:30 Elgoibar (Cadete "A"). – Arrasate

16:30 Haundi- Zalla

18:30 Elgoibar (Jubenil). – Urola

ESKUBALDIA

Zapatua, 26

11:30 Pneumax (kadete mutilak) – Arrate

17:30 Tecnifuelle (senior neskek.) – Zarautz

19:00 Alkorta (senior mutilak) – Urdaibai

Domeka, 27

09:30 Ikus (infantilak neskek) – Zarautz

10:45 Aterpe (infantilak neskek) – Zarautz

ARETO FUTBOLA

Zapatua, 26

16:00 Concepto (senior mutilak) – Orio

SASKIBALDIA

Domeka, 27

12:15 Gabi (sen.mutil) - Askatuak

PILOTA

Barixakua, 25

22:00 Lagunak-Ataun (2.mailako kad)

22:00 Lagunak-Mundarro (2.maila jub.)

Domeka, 27

12:00 Lagunak-Lapke (1.maila nag.)

Etxeberriaren 500. partida Athleticekin, eta Zubiaurren debuta San Mamesen



Austria taldeari 3-0 irabazita, ezin hobeto ekin dio Athleticen UEFA Europa Leagueko Multzoko Faseari. Hiru partida jokatu ditu, eta hirurak irabazi. Joan zen astean Austriaren kontra jokatuakoa, gainera, berezia izan zen Elgoibarko eta Mendaroko bi jokalarientzat. Joseba Etxeberria hasierako hamaikakoan irten zen, eta 500. partida jokatu zuen elastiko txuri-gorriarekin. Athleticen historia luzean Jose Angel Iribarrek eta Txetxu Rojok baino ez dute ondo kopuru hori. Elgoibartarrak 15. denboraldia du Athleticekin, eta erretiroa hartuko du. Berak hala erabakita, kobratu gabe ariko da gainera.

Iban Zubiaurre mendaroarrak ere nekez ahaztuko du Austriaren kontra partida. Athleticekin San Mamesen partida ofizialean debutatzeko aukera izan zuen. Iraolaren orde zela iratu zen, jada partida erabakita zutela. Orain arte Ligako bi partida eta Kopako bat baino ez ditu jokatu, hirurak etxetik kanpo.

LANA

ESKAERA

- Emakumea nagusiak zaintzeko prest, 17:00etik 10:00era. ☎ **638 344 377**
- Gizonezkoa banatzaile lanetarako edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest. ☎ **638 344 377**
- Emakumea interna lan egiteko prest. ☎ **680 605 355**
- Emakumea lan egiteko prest, lanegunetan edo asteburuetan. ☎ **618 052 967**
- DBHko gaztelania eta matematikako klase partikularrak ematen dira. Talde txikiak. Esperientziaduna. ☎ **943 744 206**
- Neska euskalduna astebukaeran lan egiteko prest, nagusiak zaintzen edota etxeko lanak egiteko prest. Klinika laguntzailea. ☎ **606 642 284**
- Emakumea arratsalde edo gauz lan egiteko prest. Garbitzaile lanetan esperientzia. ☎ **610 632 782**
- Emakumea pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Elgoibar edo inguruan. ☎ **686 521 598**
- Haur Hezkuntzako ikasketak amaitu dituen neska, haurrak zaintzen lan egiteko prest, edozein ordutegirekin, astean zehar eta asteburuetan. ☎ **666 216 098 / 943 740 691**
- Emakumea garbiketa lanak, sukaldari laguntzaile lanak edota haurrak eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ **675 940 901**
- Emakume euskalduna esperientzia handiarekin pertsona nagusiak zaintzeko. Gauzez edo egunez. ☎ **943 744 433**

- Magisteritza ikasten ari den eta aisialdiko hezitzailea den neska gaztea haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎ **679 237 611**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest, eta garbiketa lanetarako prest. Orduka. ☎ **648 603 029**
- Emakumea pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **618 163 061**
- Gizonezkoa edozein lan egiteko prest. ☎ **616 260 793**
- Ingleseko klase partikularrak ematen dira, talde txikiak. ☎ **679 113 446**

ESKAINZA

- Igeriketa Lantzen enpresak Elgoibarko kiroldegirako harrera postuan lan egiteko pertsonala behar du, astebukaeraketa ordezkapenak kubritzeko. Interesatuak igeriketalantzen@igeri.net helbide elektronikora kurrikuluma bidali.
- Sukaldeko laguntzailea behar dira. ☎ **943 743 196**

ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK

SALMENTA

- Altzolan pisua saltzen da. 3 logela, komuna, sukaldea eta despentsa. Berrikuntza behar du. Teilatu berrria. Ekonomikoa. ☎ **680 707 639**

ALOKAIRUA

- Estudio edo lokal txiki bat alokatzen da. 18 urtetik gorakoentzat. ☎ **667 838 858**

- Gela alokatzen da Eibarren. Zentrotik gertu. Bero-gailua, wi-fi, etxean bi lagun izateko. ☎ **620 633 434**
- Santa Ana kalean pisua konpartitzeko bi pertsona behar ditut. ☎ **658 700 164**
- Pisua alokagai, Elgoibar erdialdean, 3 logela, altzarietan eta igogailuarekin. 2.solairuan. ☎ **647 128 764**
- Konpartitzeko edo alokairurako pisua biltzen da. ☎ **689 062 279**

MOTORRAK ETA GARAJEAK

- Garajea salgai, San Roken. 2-10 zenbakidun portaletako 60. zenbakia. ☎ **676 719 705**
- Pista Beltzean marrazdun garajea alokatzen dut. ☎ **653 863 482**

BESTELAKOAK

- Elgoibarko Babes Ofizialeko pisua (Toletxegainen, geltoki parean), Eibarko beste batengatik aldatuko nuke. 70 metro koadro, bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Garajea. ☎ **659 381 317**
- Negozioa traspasoan, merkatu plazan. ☎ **671 976 028**
- Irailaren 4an emakume-praka marroi batzuk galdu ziren Trenbide kalean. ☎ **943 254 177**

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero barren.iragarkilaburak.com atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

Lana / Bestelakoak

Astebete : 5 euro

2 aste : 8 euro


3 aste : 10 euro

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

Astebete : 10 euro

2 aste : 17 euro

3 aste : 25 euro



Lanbroa

**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 - Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06



ECANIZADOS
S.COOP
BUKATU.

OLASO Poligono Industrials - Olasepe kale, 6
66 atea - Telefonoa: 943 74 42 54 - Fax: 943 74 02 98
20870 ELGOIBAR
E-posta: bukatu@bukatu.es - Htt: www.bukatu.es



Jose Angel Zabala

MAHASTI

Urdaitegi eta arandegia

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72



• Zorionak, **Nerea**, atzo 7 urte egin zenituelako. Muxu asko familiakoen partez.



• Zorionak, **Xabier**, gaur 2 urte egin dituzulako. Muxu bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Diego**, gaur 9 urte egin dituzulako. Ondo pasa! Gurasoak, Paula eta Jorge.



• Zorionak, **Paula**, zure 3. urtebetetzean. Etxekoan, eta bereziki, Naroa, June eta Marinaren partez.



• Berandu baina zorionak, **Alain!** Familiakoen eta bereziki Unaxen partez. Muxu potolo bat!



• Zorionak, **Eukeni!** Aurten doble zorion, gainera! Ondo-ondo pasa zure eguna.



• Zorionak, **Udane**, joan zen astean 3 urte egin zenituelako. Muxu bat familiakoen eta Goiatzen partez.



• Zorionak, **Aitor**, zure 10. urtebetetzean. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Eneritz**, joan zen astean urte bat egin zenuelako. Muxu handi bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Manex**, eta bi patxo handi laguneren partez.



• Zorionak, **Nora**, zure 3. urtebetetzean. Muxu handi bat Maite eta Mirenen partez.



• Zorionak, **Malalen**, zure 5. urtebetetzean. Muxu bat familiakoen, Nekaneren eta Asierren partez.



• Zorionak, etxeko bi printzesei! Muxu potolo bana eta ondo pasa!



• Zorionak, **Yaiza eta Yeray**, irailan 8 eta 12 urte egin dituzuelako. Muxu handi bat familiakoen partez



• Zorionak, **Nerea eta Ander**, 4 eta 8 urte egin dituzuelako. Familiakoen, eta bereziki, osaba Jabiren partez.



• Zorionak, **ama-semeei**, 30 eta 2 urte egin dituzuelako. Ondo pasa!



• Zorionak, **aitabo eta tio Ifigo**, zuen urtebetetzean. Familiakoen, eta, bereziki, Oihane eta Mikelen partez.



• Zorionak, **bikotet!** Iritsi da egun handia! Zapatuan dena emateko prest azalduko gara.

OHARRA

Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.

BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xizilon, 2 - 3. sotoa 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA.

CORDON VILARCAHO

DEKORAZIOA

Karpo eta barneko estaldura
Zolak ezartzea
Lakaduz egot, aluminio, PVC,
Pintuz osaketa

San Roke, 7 behean
Pel. Glaso - Glasago kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 749 570

GRUPO
TRYSUM

OKINDEGIA

27 domeka **EIZAGIRRE**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 25 Zabaleta
- 26 Etxeberria (Errosario)
- 27 Etxeberria (Errosario)
- 28 Ibañez
- 29 Garitaonandia
- 30 Etxeberria (Santa Ana)
- 1 Fernandez
- 2 Yudego

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:

Egin klik



www.elgoiBARREN.net/en



25 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribilka egitasmoa
Gaur, *Txorro Morro* antzerkia eskainiko dute Plaza Handian. Euria bada, Ikastolako frontoian.

Musika

22:30 Kontzertua
Descritos eta *Tempestades* taldeen kontzertua Mendaroko Gaztetxean.

Eskubaloia

19:00 Sanloren bilera
Kultur Etxean.

26 zapatua

Azoka

9:00 Hileko azken zapatuko feria
Hilero bezala, Elgoibarko

baserietako produktuak erosteko aukera izango da. Ganadu feria ere izango da.

Musika

11:45 Kale Kantariak
Elgoibarko Kale Kantarien saioa, Nafarroa Plazan.

Motor ikuskizuna

19:45 Scooter erakustaldia
Gazte batek bi scooterrekin ikuskizun berezia eskainiko du Plaza Txikian.

Musika

23:30 Rock kontzertua
Nafarroako *Bocanada* taldeak kontzertua emango du. Madalako parketan.

27 domeka

Motor kontzentrazioa

11:00 Motor erakusketa

Skull Riders taldeak antolatuta, Plaza Handian. Hamaiketakoaren ondoren, motor ibilaldi bat egingo dute, eta eguerdian bazkaria izango da Sigmako aparkalekuan.

28 astelehena

Tailerra

17:00 Ezagutu zeure burua
Haizeak antolatuta, psikologia tailerra hasiko da. Artetxeko eskolan.

1 eguena

Erakusketa

19:00 Tibeteko Mandala
Monje tibetarrek eginitako Mandala egongo da ikusgai urriaren 4ra arte. Kultur Etxean.

GAZTELEKUKO EKINTZAK	
	BARIXAKUA 25 Kanpo ekintza 15:30
	ZAPATUA 26 Zinema Gaztelekuan 18:00
	DOMEKA 27 Zinema Gaztelekuan 18:00
	MARTITZENA 29 Eskulanak 17:00
	EGUAZTENA 30 Txoko pribatua 17:00
	EGUENA 1 Sukalde tailerra 17:00

LUDOTEKAKO EKINTZAK	
	BARIXAKUA 25 Eskulanak 17:30
	ASTELEHENA 28 Musika saioa 17:30
	MARTITZENA 29 Irakurketa txokoa 17:30
	EGUAZTENA 30 Kanpo solasak 17:30
	EGUENA 1 Jolas librea 17:30

«Tres días con la familia»
25, barixakua: 22:15

Espainia, 2009. Zuzendaria: Mar Coll.
Aktoreak: Nausicaa Bonnín, Eduard Fernandez. Iraupena: 86 min.
Aitita hiltzen denean Gironara itzuliko da Lea; atzerrira joan zenetik, ikusi gabe

dagoen familiarengana. Familiarekin pasatuko dituen hiru egun horietan, betiko sentimenduak eta arazoak agertuko dira; baina kanpora begira itxurak egin behar dira, arazo horiek ez aineratzeko.



SAN MIGEL JAIK 2008

25 BARIKAKUA

18:30 Kanpai jotzea, jaien hasiera emateko

20:30 Triki-bertso kalejira,

EKAITZ, ARANTZA, ANDONI EGAÑA ETA XABI PAIAREKIN.

21:30 Triki-bertso afaria.

24:00 Disko festa

26 ZAPATUA

17:00 Artzai txakur txapelketa

22:30 Haritz euskal dantza

taldearen erakustaldia

Ondoren, erromeria LAKET

taldearekin

01:00 Bolo txapelketa

27 DOMEKA

11:15 San Migelera korrika igoera

12:15 Meza

Ondoren, trikitilariak

BALTZOLA anaiak

17:00 Idi demak

29 MARTITZENA

11:30 Meza nagusia

Ondoren, bertsolariak: ZIARDA eta MAÑU

13:00 Pilota partidua

Jarraian, trikitilariak

ELUSTONDO anaiak

20:30 Auzotarren afaria

Ondoren, erromeria ELUSTONDO anaiekin



Gure gomendioa

Motorren kontzentrazioa

Zapatuan eta domekan

Aurreko urteetako arrakasta ikusirik, Skull Riders taldeko kideek hirugarren urtez antolatu dute motorren kontzentrazioa. Asteburu osorako egitaraua prestatu dute, eta berrikuntzekin datoz, gainera. Gazte batek bi motorrekin ikuskizun berezia eskainiko du zapatu arratsaldean Plaza Txikian, eta gauean *Bocanada* taldearen musika kontzertua izango da Madalako parkean. Domekan, motorren kontzentrazioa izango da Plaza Handian.

Zerikasi

IKASTAROAK

Eskulanak

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Euskaraz eta gazteleraz

Hasiera data: 2009-09-28

Non: Mutrikun

Izenemate bukaera: Kontsultatu

Altzariak zaharbertitzeko ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Kontsultatu

Hasiera data: 2009-09-28

Non: Elgoibarren

Izenematea: 678 840 451 (Mertxe) 615 764 337 (Nieves)

Diseinu grafikorako teknikaria

Norentzat: Langabetuentzat

Hizkuntza: Gazteleraz

Hasiera data: 2009-10-01

Non: Eibarren

Izena emateko: 943 120 156 (Iñigo)

Saltzaileentzako prestakuntza

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Gazteleraz

Hasiera data: 2009-10-05

Non: Elgoibarren

Izenemate bukaera: Urriak 5

Reiki ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Gazteleraz

Hasiera data: 2009-10-31

Non: Eibarren

Izena emateko: 665 743 217 (Martin)

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71



MEKANOSA

Errosario, 27

Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



URKIDI
AHOLKULARITZA



Antonio Urkidi
Josefina Fernandez

Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12

Erretratu zaharra



1967

Aste honetako erretratu Maria Victoria Jauregik ekarri du BARREnera. 1967ko sanbartolomeetan ateratako argazkia da, hain zuzen ere, Txiki Egunean. Koadrilan ospatzen zuten eguna, eta gaur egun ere, lagun artean iriteten dira kalera herriko jaietan. Argazkian ikusten denez, umorerik ez zaie falta. Gogora ditzagun neska gazte horiek:

Ezkerretik hasita: Maria Victoria Jauregi, Gloria Canales, Mentxu Iglesias (†), Mariasun Gabilondo eta Mari Jose Altuna.

Gure berbak

Hiztegixa: bedarrak eta landariak (6)

- ◆ **PERREJILL**, **perrejilla**: Perrexila.
- ◆ **PERRETXIKO**, **perretxikua**: "Seta".
- ◆ **PIKU**, **pikua**: "Higuera", "higo". **Piku-arbolia** ere bai.
- ◆ **PIKUPASA**, **pikupasia**: iz. "Pasa de higo".
- ◆ **PIÑU ABETO**, **piñu abetua**: "Abeto", pinu mota bat.
- ◆ **PIÑU ALERTZE**, **piñu alertzia**: "Alerce", pinu mota bat.
- ◆ **PIÑU**, **piñua**: "Pino".
- ◆ **PIÑUBURU**, **piñuburua**: "Piña".
- ◆ **PIÑUDI**, **piñudixa**: iz. Pinudia.
- ◆ **PITXILORA**, **pitxiloría**: Margarita txikia.
- ◆ **PLATANO**, **platanua**: **1.** Banana. **2.** "Plátano", orri zabalak dituen arbola, herriguneetan asko ikusten dena.
- ◆ **PORRU**, **porrua**: "Puerro". **Porru-patatak.**

Porrua sartu: Zirixa sartu-ren zentzu berarekin erabiltzen da. **Porru eginda egon.** Neka-neka eginda egon.

- ◆ **ROBELLOI**, **robilloia**: "Níscalo". **Robelloe** ere bai.
- ◆ **SAGAR**, **sagarra**: Sagarra, fruitua eta arbola.
- ◆ **SAHATS**, **sahatsa**: "Sauce".
- ◆ **SAL TSA-PERRETXIKO**, **saltsa-perretxikua**: "Rebozuelo, cabrilla". **Txaitxa** ere bai.
- ◆ **SAN JOSE LORA**, **San Jose loria**: San Jose egun inguruan ateratzen den lorea, "primavera".
- ◆ **SAN JUAN LORA**, **San Juan loria**: "Zanahoria silvestre".
- ◆ **SEKULA-BEDAR**, **sekula-bedarra**: Ikus **Sekular** sarrera.

- ◆ **SEKULAR**, **sekularra**: Hirusta, sekula-belarra.
- ◆ **SUBE-BEDAR**, **sube-bedarra**: Sugeen janarizat hartzen den lorea duen landarea, "aro".
- ◆ **TOMATE**, **tomatia**: Tomatea.
- ◆ **TXANPIÑO I**, **txanpiñoia**: "Champiñon".
- ◆ **TXOPO**, **txopua**: "Chopo". **Makala** ere bai.
- ◆ **TXORTEN**, **txortena**: Fruten buztantxo, txurtena.
- ◆ **URDIÑ**, **urdiña**: Gibelurdina, perretxiko mota bat.
- ◆ **URRITZ**, **urritza**: **1.** "Avellano". **2.** Kolore moreko perretxikoa, "Rúsula".
- ◆ **UZTAO**, **uztaua**: Belar txarren artean eza-gunena.

Jesus Mari Makazaga

ESKERTZA

MARIA SAINZ SAROBE

2009ko irailaren 23an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioa - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Lehoak

Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioa - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalaiek
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza,
berogailua,
eguzki energia,
gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilioa
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Proiektu eta
erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Killimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Autoentzako
tindatutako
kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilioa
☎ 943 74 30 94



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87

Desigual

San Inazio, 5 behea
☎ 943 748 925
☎ 677 846 069
Faxa: 943 531 502
pinturasdesigual@hotmail.es



Lorezaintza

Pagoa Ioradenda

Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307



Sarrailagintza

Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)
☎ 943 701 391
giltzak@giltzak.com



OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

Beria!!! Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

(Pisu kontrola, "Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Naturopatia, Bach loreak, P.N.L, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Quantum scio (estres kontrola) tarot terapeutikoa eta familia konstelazioa (banaka)
San Bartolome, 29
Tel: 943 744 031
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9
Tel: 943 748 593 (Idoia) - 685 722 131
Astearte eta ostegunetan:
10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/
18-19:30/20-21:30
Mendaro
Astelehen eta asteazkenetan:
10-11:30/15-16:30
Astearte eta ostegunetan:
20:00-21:30

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikorik egongo balitz, etxez etxeko zerbitzua eskainiko litzateke.
Tel.: 943 531 953
669 565 745
Goiz eta arratsaldez .
Jausoro, 6 behea

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10 - Tel: 943 743 734
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00
Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 - Tel: 943 740 359
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 - Tel: 943 74 35 62
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea.) San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea) -Tel.: 943 740 770
Astelehenetik Ostiralera : 8:00 / 14:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)
Tel: 943 743 679
Zeharkalea, 8 behea (Ermua)
Tel: 943 177 134
irale@irale.com
www.irale.com

Leku eder

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza, 5 behea
Tel: 943 530 053
lekueder@informed.es

Beltia Arriola

- Odontologia orokorra eta ortodontzia
- Haurren Hortzagin programa
- Panoramikak eta telerradiografiak
Trenbide kalea 21, behea
Tel: 943 531 869

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25
Tel: 943 741 795
Astelehenetik ostiralera:
9:00-13:30
15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.
- Neurriera egindako plantilak.
- Hanka diabetikoen zainketa.
- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.
San Frantzisko kalea, 20 behea
Tel: 943 741 645
Ordutegia:
9:30-13:30
15:30-19:30

